

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Behin betiko onespina ematea lokalak lagatzea eta erabiltzea arautzen duen udal erregelamenduari

Ez da aurkeztu erreklamaziorik Iruña Okako Udalaren lokalak lagatzea eta erabiltzea arautzen duen udal erregelamenduaren aurka, zeinaren hasierako onespina erabakia 2019ko maiatzaren 6ko ALHAOn, 52. zk., argitaratu baitzen; hortaz, behin betiko onetsizat jotzen da, eta ondoren osorik argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasorikoa onorioetarako:

UDAL LOKALAK LAGATZEKO ETA ERABILTZEKO UDAL ERREGELAMENDUA

ZIOEN AZALPENA

Toki erakundeen ondarea eraginkortasun eta errentagarritasun printzipioen arabera kudeatzea toki erakundeen ondasunen gaineko legerian jasotzen den arduetako bat da. Udalen lana da, herritarrekiko administrazio publiko hurbilena diren heinean, beraien baliabideak eta ondasunak herritarren eskura jartzea, modu koordinatuan, elkarte sarea sortzen laguntzeko, eta helburua izanik herritarren hainbat alderdi garatzea: elkartasuna, gizarte arloa, kultura, kirola edo interes orokorreko beste edozein.

Aipatutako arrazoiengatik, Iruña Okako Udalak udal jabegoko lokalen erabilera laga izan die irabazteko xederik gabeko elkarteei zein pertsona fisiko eta juridikoei, haien eginkizunak garatzera eta haien helburuak lortzera bideratutako ekintzak eta gizartearen intereseko jarduerak egiteko.

Hala ere, lokal horiek erabiltzeko araurik ez egoteak antolaketa arazoren bat sor dezakeenez, beharrezkoa da udal lokalen erabilera arautzeko erregelamendu bat egin eta onestea.

Beraz, arau honek bi helburu ditu. Lehenengoa, prozedura arautzea, halako moldez non udal lokalak baldintza berdinetan erabili ahal izango diren, lehentasuna eman lokal erabilerak gizarteari eman diezaioketen ahalik eta onurarik handienari, eta bigarrena, lokal horien erabilera eta funtzionamendua arautzea.

Arauketa hori ezartzeko, erregelamendu hau onesten da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikulua toki erakundeei erregelamenduak egiteko eta beren buruak antolatzeko aitortutako ahalmenak erabiliz.

1. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Erregelamendu honen xedea da arautzea udal honen jabegoko udal lokalak erabiltzea lagatzeko beharrezko prozedura eta lagapen hartzaileek lokalei eman beharreko erabilera.

Erregelamendu honetatik kanpo gelditzen da lokalak lagatzea beste administrazio publiko batzuek eta haien menpeko erakundeek erabiltzeko.

2. ARTIKULUA. LAGAPENAREN XEDEAK

Erregelamendu honetan araututako lagapenak eta erabilerak ondorengo xede hauek lortzera bideratuta egon beharko dira:

– Leku komunitarioen eta topaguneen erabilera partekatua sustatzera Iruña Okako udal-erriko herritarren, elkarteen, taldeen eta gainerako eragileen artean.

– Elkarrekin antolatutako programa eta jarduerak kulturalak, informatiboak, hezigarriak, hezkuntzakoak eta ludikoak martxan jartzea erraztera.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Herriko bizitzarekin zerikusia duten jarduerak egiteko lokala behar duten pertsona fisikoei edo juridikoei, elkartei edo taldeei laga ahal izango zaizkie lokalak.

Ezingo da lokalik laga irabazteko asmoa duten elkartei. Irabazteko asmoa duten elkarteek aretoak alokatu ahal izango dituzte zerga ordenantzetan jasotako prezioa ordainduta.

Irabazteko asmorik gabeko elkartetzat joko dira hala jasota daukatenak beraien estatutuetan eta inolako ekonomia jarduerarik egiten ez dutenak, eta eginez gero, horrekin lortutako irabaziak beraien estatutuetan jasotako interes orokorreko xedeak betetzeko baino ez dituztenak erabiltzen, elkartekideei eta hirugarrenei zuzeneko irabaziak banatu gabe.

4. ARTIKULUA. BAIMENDUTAKO JARDUERAK

4.1. Lokalen eta ondasunen erabilera nagusiki lagako da jarduerak kulturalak, artistikoak, hezkuntzakoak, soziokulturalak eta ludikoak egiteko, betiere merkataritza xederik gabe edo irabazteko asmorik gabe. Hauek dira jarduerak horiek:

- Antzerki edo dantza emanaldiak.
- Kontzertuak, entzunaldiak.
- Ikus-entzunezkoen emanaldiak.
- Ikastaroak, lantegiak, mintegiak.
- Hitzaldiak, biltzarrak.
- Bilerak.
- Erakusketak.
- Aurkezpenak.
- Ekitaldi politikoak.
- Entseguak.

4.2. Lokalaren erabileren artean jasota egonez gero, honako hauek ere baimenduko dira:

- Ezkontza zibilak. (Santa Katalinako lorategi botanikoan).
- Antzeko ekitaldiak.

4.3. Jarduera bat egin ahal izateko alkate-lehendakariak onetsi behar du lehenengo.

4.4. Lagapenen onuradun diren elkarte zein taldeek hitzematzen dute bete egingo dutela udalak hizkuntza normalizaziorako ezarritakoa, eta horretarako, euskara erabiliko dute jarduerak direla-eta sortzen diren agiri eta idazki guztietan eta ekitaldi publikoetan eta egindako jardueretan (kartelak, oharra, iragarkiak, programazioak, liburuxkak...).

5. ARTIKULUA. MERKATARITZA XEDEA ETA/EDO IRABAZTEKO ASMOA DUTEN JARDUERAK

Udalak eskubidea izango du lokalen erabilera merkataritza xedeetarako edota irabaziak lortzeko lagatzeko, baldin eta lagapen-hartzailea irabazi asmorik gabeko taldea edota elkarte baldin bada, talde edo elkartearen xedearekin lotutako jarduerak baldin badira, eta taldearen edo elkartearen xedearekin eta izaerarekin zerikusirik ez duten jarduerak ezkututzen ez badituzte. Halakoetan, lagapena aldi baterako izango da.

6. ARTIKULUA. LAGAPEN MOTAK

Udal honek hainbat eratara laga ahal izango ditu lokalak:

- Lagapen zehatzak: egun bateko erabilera bakarra eta zehatza, hala nola bilerak, hitzaldiak, biltzarrak, eta abar.
- Behin-behineko lagapena: udalaren lokala hainbat jardun jakinetarako erabiltzea. Lagapenaren indarraldia, guztira –egon litezkeen luzapenak barne–, urtebete baino gutxiago izango da.
- Aldi baterako lagapena: udalaren lokal bat aldi baterako erabiltzea, urtebete edo gehiago bi aldeek hala adostuta.

7. ARTIKULUA. LAGAPENEN IZAERA

7.1. Lagapenaren egunean indarrean dagoen zerga ordenantzan ezarritakoa bete beharra gorabehera, lagapenak doan eta prekarioan izango dira xedea denean ondorengo jarduera hauek egitea:

7.1.1. Iruña Okako Udalak edo harekin elkarlanean antolatutakoak.

7.1.2. Partikularrek edo kultur, hezkuntza, kirol, gizarte edo aisialdi elkarteek antolatutakoak, baldin eta antolatzen diren ekitaldietan ez bada inolako zenbatekorik kobratzen. Jarduera irabazi asmorik gabe egiten dela Iruña Okako Udalak aitortu beharko du berariaz, hura egiten den bakoitzean.

7.1.3. Udalak zehazturikoak, talde artistiko edo sozialek ordainetan kultura zerbitzuak ematearen truke.

7.1.4. Sarrera edo izen ematea kobratu ez eta helburutzat salmenta ez duten jarduerak.

7.1.5. Interesdunak alde zuzenetik eskatuta, Kulturako Informazio Batzordeak irizten badio espazioak lagatzea justifikatzen duen jarduera gizarte interesekoa edo onura publikokoa dela, eta hala proposatzen badu, alkateak interesduna salbuets dezake ezarritakoa ordaintzetik.

7.2. Lagapenaren egunean indarrean dagoen zerga ordenantzan ezarritakoa bete beharra gorabehera, lagapenak kostua izango du, hau da, kontraprestazio ekonomikoa edo soziala, kasu honetan:

Lokalak lagatzea legez eraturako klub eta elkarteei edo pertsona juridikoei, baldin eta lokalean egiten diren jarduerengatik izena ematean diru kopuru bat edo kuota bat kobratzen bazaie bertaratuei edo parte hartzaileei, edo jarduera horien bidez dirua irabazten badute. Tasa bat kobratuko da lokala erabiltzeak dakartzan gastuak ordaintzeko (argia, berokuntza eta garbiketeta).

Lokala lagatzen den unean zehaztuko da ordaina, zeina ekonomikoa edo soziala izango baita.

8. ARTIKULUA. ORGANO ERABAKITZAILEAK

Baimenak emateari eta lokalak erabiltzeari buruzko gainerako kontuak Kulturako Informazio Batzordeak kudeatuko ditu, eta alkateak edo hark eskuordeturiko zinegotziak ebatziko ditu, salbu eta udalbatzaren eskumeneko arloak badira.

Egun natural baten barruan egiteko diren jardueretarako lagapen zehaztetan, eskaera egiterakoan esango da aretoa erabilgarri dagoen ala ez.

9. ARTIKULUA. LAGAPEN ETA ERABILERA IRIZPIDEAK

9.1. Erakundeei edo partikularrei baimena eman baino lehen, lehentasuna izango du beti instalazioak erabiltzea Iruña Okako Udalak antolatutako edo babestutako jardueretarako.

9.2. Elkarte edo taldeei guneen erabilera adjudikatzerakoan lehentasuna izango dute Iruña Okako Udalean kokatuta dauden, elkartearen udal erregistroan izena emanda dauden eta udalean antolatuta dauden elkarte eta taldeek.

9.3. Lokalak kokagune izango duen espazio bakoitza lagatzeko eta erabiltzeko irizpideak honela arautuko dira:

Eskatzaile bakoitzari zein gune esleitu erabakitzeko honako hauek izango dira kontuan: dau-den premiak, guneak erabilgarri egotea eta egin beharreko jarduera mota eta haren ezaugarriak.

Halaber, lokalak baino eskari handiagoa egongo balitz, haien erabilera lagatzeko hauexek izango dira kontuan: lehentasuna izango dute udalerrian erroldatutako kide gehien duten taldeek; era berean, lehentasuna izango dute, eta baloratu egingo da, kultura ekitaldiak edota ekintzak antolatzen edo halakoetan parte hartzen duten taldeek; hau da, nolabait herriari bueltatutako zaio lokala lagatuko denboran egindako kultur jarduera.

2. TITULUA. LAGAPEN ZEHATZA ETA BEHIN-BEHINEKOA

10. ARTIKULUA. PROZEDURA ETA EBAZPENEA

10.1. Egun natural baterako edo gutxiagorako jardueretarako lagapen zehatzak udaletxeko Erregistro Orokorrean edo kasuan kasuko bulegoetan (Gizarte eta Kultura Etxea) eskatu beharko dira idatziz. Lokala erabilgarri dagoen ala ez eskaera egiterakoan jakinaraziko da, eta baimena ere orduan emango da.

10.2. Urtero programatzekoak ez diren jarduerak egiteko lokalak lagatzeko eskaerak udaletxeko Erregistro Orokorrean egin beharko dira, alkateari zuzendutako idazki baten bidez, eta alkateak berak edo hark eskuordetutako zinegotziak ebatziko ditu.

Idazki horretan honako hauek jaso beharko dira:

- Eskatzailearen datuak.
- Lagapenaren iraupena.
- Egingo diren jardueren zerrenda, ondo zehaztuta.
- Pertsona kopurua.
- Lagapenaren xedea.
- Jarduera zein hizkuntzatan egingo den.

10.3. Urtean zehar, ikasturtean zehar edo denboraldi luze batez egiteko jardueretarako lagapenak urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen eskatu beharko dira, jarduera plangintza osoa eta jarduerak noiz egin nahi diren erantsita, halako moldez non udalak lokalen erabileraren programazio orokorra alde aurretik onesteko modua izango baitu. Programazio horrek zentroak ireki eta ixteko ordutegiak eta egutegi orokorra bete beharko du.

10.4. Udalak eskaera guztiak aztertu eta banaketa proposamena egingo du erabilgarri dau-den lokalen, erabiltzeko eskatutako denboraren eta ondorengo irizpideen arabera:

10.4.1. Jardueren errentagarritasun soziala eta/edo kulturala.

10.4.2. Lehentasuna emango zaie Iruña Okako elkarteei eta taldeei.

10.4.3. Lehentasuna emango zaie udalak sustatutako jardueri.

10.4.4. Ezingo zaie lokalik laga irabazteko asmoa duten erakundeei, salbu eta oso ondo justifikatutako kasuetan.

10.4.5. Ezingo da lokalik laga elkarteren edo talderen batek sustatutako jardueretarako, baldin eta jarduera horren atzean elkarteko edo taldeko kideren batentzako edo hirugarren pertsonentzako irabaziak lortzeko asmoa badago. Kasu bakoitzean egingo den balorazioa gorabehera, egoera hartatzen joko da jarduerak ezkututzen badituzte elkartearen berezko izaerarekin edo helburuekin zerikusirik ez dituzten jarduerak, jarduerok behin eta berriz errepikatzen direlako, onura ekonomikoak lor ditzaketan pertsonen behin eta berriz parte hartzen dutelako,

jarduerak gutxi batzuei zuzenduta daudelako, edo elkarteren edo taldearen berezko izaerarekin edo helburuekin zerikusirik ez duten jarduerak antolatzen direlako.

10.4.6. Lagapenen tratamendu ekonomikoa erregelamendu honetan ezarritakoari lotuko zaio.

10.4.7. Lagapenen ordutegia eta baldintza teknikoak udalak ezarritakoak izango dira.

10.5. Behin eskaera jasotakoan, Informazio Batzordera eramango da eskaerari buruzko proposamena egin dezan.

10.6. Ebazpena alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak emango du. Eskaera egin zenetik 3 hilabete igaro badira eta ez bada jakinarazi esanbidezko ebazpena, eskaera administrazio isiltasunaren bidez ezetsi dela ulertu beharko da.

3. ARTIKULUA. ALDI BATERAKO LAGAPENA

11. ARTIKULUA. KONTZEPTUA

Udal lokal baten erabilera aldi baterako lagatzen da aldeek hitzartutako lagapena urte baterako edo gehiagorako bada, doan eta prekarioan, eta ez du inolako eskubide ekonomikorik edo alokairuzkorik sortzen ez batzuentzat ez besteentzat.

12. ARTIKULUA. PROZEDURA, EBAZPENA ETA FORMALIZAZIOA

Elkarte interesdunak eskaera egin eta gero egingo da lagapena. Eskaera formalizatzeko, instantzia orokor bat aurkeztu beharko da nahitaez udaletxeko erregistroan, eta zehaztu beharko da zein espazio erabili nahi den eta zertarako.

Eskaera idazki horrekin batera memoria bat aurkeztu beharko da, eta han honako hauek jaso beharko dira:

- Zer jarduera egingo den eta zer xede erdietsi nahi den, eta abian den urterako zer xede ezarri diren.

- Jardun eremua.
- Jarduera zer ordutan egin nahi den.
- Zenbat baliabide edo langile dagoen jarduera egiteko.
- Aukerarik dagoen lokala beste elkarte edo talde batzuekin batera erabiltzeko.
- Zein ezaugarri izan behar dituen lokalak.
- Komenigarritzat jotako eta organo eskudunak eskatutako beste edozein.

Behin eskaera jasotakoan, Informazio Batzordera eramango da eskaerari buruzko proposamena egin dezan.

Lagapen proposamenak gutxienez izan behar duen edukia:

- Lagapenaren xede den ondasuna.
- Erabileraren lagapen modua (partekatuta ala eskusiboan erabiltzeko).
- Lagapen epea.
- Elkarrekin edo taldeak lokala mantentzeko kostuetan parte hartuko duen ala ez.
- Erabilerarekin batera lagako diren ondasun higigarrien inbentarioa.
- Erregelamendu honetako xedapenak jasotzen dituen hitzarmen proposamena.

Ebazpena udalbatzak/tokiko gobernu batzarrak emango du. Eskaera egin zenetik 3 hilabete igaro badira eta ez bada jakinarazi esanbidezko ebazpena, eskaera administrazio isiltasunaren bidez ezetsi dela ulertu beharko da.

Erabilera lagapena eta hartarako baldintzak formalizatzeko agiri edo hitzarmen bat egingo da, zeina sinatuko baitute alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak eta elkartearen edo taldearen ordezkariak/lehendakariak.

Erabileraren lagapen hitzarmena formalizatzeko, elkarteak edo taldeak ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

– Elkartearen legezko inskripzioaren ziurtagiria.

• Estatutuen kopia.

• Ordezkariaren NANA.

13. ARTIKULUA. IRAUNALDIA

Lagapena urtebeterako izango da, eta berriztatu ahal izango da elkarteak edo taldeak aurrez horrela eskatuz gero eta eskaera horretan jardueraren jarraipena jakinarazi. Hala ere, lagapenean aldean artean hitzartutako iraupena ere jaso ahal izango da hitzarmena sinatzen denetik.

Nola lagapena prekarioan egin den, udalak edozein momentutan iraungi ahalko du kalte-ordainik eman gabe, interesdunari hilabete lehenago errekerimendua egin eta gero.

Hitzarmena deuseztatzeko arrazoia izango da hitzarmeneko betebeharren bat ez betetzea.

Kasu horretan, deuseztapenaren aurretik, udalak entzunaldia eskainiko dio elkarteari alegazioak egin ahal izateko. Horretarako, 15 eguneko epea izango da.

4. TITULUA. ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDU ARAU OROKORRAK

14. ARTIKULUA. ERABILERA PARTEKATUA

Lokalean egin nahi diren jarduerengatik eta xedeengatik ez bada ondorioztatzen lokala eskusiboan erabiltzeko premia, lokala lagatzeko edo baimena emateko erabakian erabilera partekatu beharra jaso ahal izango da, eta horretarako, erabilera baldintzak, ordutegia eta egunak ezarriko dira.

Lokala erabiltzen duten elkarten edo taldeen benetako beharrei egokitzeko, udalak erabilera ordutegiak aldatuko ditu nahi izanez gero.

15. ARTIKULUA. MANTENTZE LANA

Esklusiboan zein partekatuta erabiltzeko lokalak, eta orokorrean, eraikin osoa eta, hala badagokio, altzariak ere arduraz zaintzeko betebeharra daukate elkarteek, eta beraiek izango dira elkartekideek eta erabiltzaileek edozein motatako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik eragin ditzaketen kalteen erantzuleak, eta udalak alde aurretik baimena emanda, egin beharreko konponketak berehala egin beharko dituzte. Erakunde onuradunak egin beharko ditu lagapenaren barnean dauden ondasun higigarrien mantentze lanak eta konponketak.

Erakunde onuradunek ezingo dute beraientzat bakarrik edo partekatzeko lagatuko gunean, ezta, orokorrean eraikin osoan ere, inolako obrarik edo jarduerarik egin organo eskumendunaren berriazko baimenik izan gabe.

Erakunde onuradunek baimena eskatu beharko dute aparatuek (berogailuak edo antzekoak) erabiltzeko lokaletan.

Egindako obrak edo jarduerak eraikinaren onurarako izango dira, eta haiek egiteagatik ez da egongo inolako kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik. Erakunde onuradunek baimenik gabeko obrak eginez gero, udal administrazioak ondasuna jatorrizko egoerara itzultzeko agindu ahal izango du, eta erakunde horiek ez dute izango inolako kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik. Agindutakoa beteko ez balute, subsidiarioki egin ahal izango dira lehengoratzeko obrak, eta erakundea behartuta egongo da haien kostua ordaintzera.

Lehengoratzeko obrak egitea ezinezkoa balitz ondasunari kalterik egin gabe, sortutako kalteak ordaintzera behartuta egongo da kaltearen eragilea.

16. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUN ZIBILA

Lagatako lokaletan hirugarren pertsoneri (udala bera ere hirugarren pertsona da) kalteak eta galerak eraginez gero, kideen eta erabiltzaileen egite edo ez-egite, dolu edo axolagabekeriaren ondorioz, erakunde bakoitza izango da horren zuzeneko erantzulea.

17. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradun guztiak behartuta daude erregelamendu honetako xedapen orokorrak betetzera. Halaber, honako hauek betetzera ere behartuta daude:

17.1 Erabilera lagapenaren erabakiaren titular den erakundeko ordezkaria izendatzera. Ordezkaritza hori izango da instalazioaren funtzionamendu onaren eta ezarritako baldintzak errespetatzeko arduraduna.

17.2 Lagapen hitzarmenean ezarritako ordutegiak edo baimendutakoak errespetatzera.

17.3 Lagatako espazioa erakundeak berezko dituen xedeetarako erabiltzera, eskaeran aurkeztutako jarduerara programa betez; baita hitzarmenean jasotakoetarako edo kontzejuak baimendutakoetarako erabiltzera ere.

17.4. Zentroan hirugarren pertsonen merkataritza publizitaterik ez egitera, baldin eta udalaren baimenik ez bada. Honako honi esaten zaio publizitatea egitea: zuzenean zein zeharka, zerbitzuak eta/edo ondasun higarri nahiz higiezinak salerostea edo kontratatzea sustatu edo bultzatzeko helburua daukan edozein komunikazio mota.

17.5. Esleitutako lokalak eta zentroa partekatzen duten beste erakunde edo elkarteak errespetatzera.

17.6. Lokalen edo erabilera komuneko guneen xedea eta helburua errespetatzera.

17.7. Erabilera ordutegian auzokideei eragozpenik ez eragitera eta inguruko lasaitasuna ez haustera, eta horretarako, indarrean dagoen araudian ezarritako neurriak hartuko dira.

17.8. Esleitutako lokalak eta ondasunak zaintzera, osasun eta higieze egoera onean erabili daitezkeen.

17.9. Zentroko giltzak zaintzera eta hura ixteraz azkenengo erabiltzaileak beraiek direnean, hitzarmenean bestelakorik adierazten ez bada. Horrez gain, lagatako lokalak ongi erabiltzeaz arduratu behar da eta erabiltzaileak zaindu eta kontrolatu behar dira.

17.10. Esleitutako lokalaren erabilera ez lagatzera hirugarrenei –elkartekide izan ala ez–, ez osorik ez zati bat.

17.11 Jendearentzako irekita dauden zentroetan, funtzionamendu ordutegiaren barruan, inori sarrerarik ez galaraztea arrazarengatik, sexuarengatik, erlijioarengatik, iritziarengatik, sexu joerarengatik edo beste edozein baldintza personal edo sozialarengatik.

17.12. Kasuan kasuko erakundeei edo udal erakundeei sor daitezkeen edozein anomalia, gertaera edo arazo jakinaraztera eta, larrialdi kasuetan, haien berri berehala ematera.

17.13. Lagapen erabakia edo baimena irautsi edo indargabetutakoan, lagapen xede izan diren lokalak hartu ziren moduan –erabilerarengatik izandako higadura izan ezik– itzultzera udalari.

17.14. Erregelamendu hau, indarrean dagoen araudia eta erabilerako lagapen erabakia edo baimena betetzen dela zaintzeko jarraipena eta ikuskapena egin ahal izatea ahalbideratzera une oro udalari, lokaletara sartzea erraztuz eta eskatutako informazioa eta dokumentazioa emanaz.

17.15. Une jakin batean lokala erabiltzeko baimena ematera beste erakunde edo elkarte batzuei beraien proiektu zehatzak garatzeko edo lokala partekatzeko, kasuan kasuko udal zerbitzuek gainbegiratuta.

17.16. "Udal instalazioak erabiltzearen tasa arautzen duen zerga ordenantza"n ezarritako prezio publikoa ordaintzera.

17.17. Jarduera adingabeek eginez gero, beti egon beharko da adineko erantzularen bat.

17.18. Jarduera mota batzuen kasuan, aseguruia izatea eskatzen badute, hura kontratatuzera.

17.19. Kalterik izanez gero, lagapenaren arduradunak ordaindu behar izatera.

17.20. Lagapen hartzaile bakoitzari emandako gunetik kanpo ez pilotzera jardueretarako erabilitako materialak, eta espazio komunak libre egon beharko dira.

18. ARTIKULUA. FUNTZIONAMENDU ARAU OROKORRAK

Lokalak erabiltzeko lagapen guztiak, iraunkorrek edo aldi baterakoak izan, ondorengo arauen menpe egongo dira:

18.1. Lokalak erabiltzeko eskubideak erabilera arauak onartzea dakar, eta haiek ez betetzeak eskubide hori galtzea ekarriko du.

18.2. Udalak jarduera arduradun bat beti egotea eskatuko du honako hauetaz arduratzeko: ordutegia zaintzeko, jarduera egin ondoren lokala jasotzeko, garbitzeko, jarduerak sortutako hondakinak biltzeko, argiak itzaltzeko, txorroak ixteko eta abarretarako. Kontuan izan behar da lokala egoera onean gelditu behar dela, beste elkarte batzuk erabiltzeko moduan.

18.3. Lagapena duen talde bakoitzak lokalak erabiltzeko egutegia izango du, eta dagozkion egun eta orduetan bakarrik erabili ahal izango ditu; ezingo dira lokaletara sartu beste talde batzuen ordutegian.

18.4. Lokaletan egiten diren jarduera guztietan jarduerarako egokiak diren materialak erabili beharko dira, eta ezingo dira aldatu lokaleko ondasun higiezinak eta higigarriak.

18.5. Udalak lokalen erabilera lagatzea baliogabe dezake honako arrazoi hauengatik: erabilera txarrarengatik, baimendutako jarduera inolako arrazoirik gabe aldatzeagatik, istiluak sortu edo portaera txarra izateagatik, erregelamendu arauak ez betetzeagatik, eta orokorrean, erregelamendu honetan ezarritako kasu guztiengatik.

18.6. Udalak askatasun osoa izango du lagatuko lokalera sartzeko eta hango giltzak izango ditu beti.

18.7. Udala ez da lagatuko lokaletan egin beharreko jardueren zuzendaria, eta onespentik ere ez die ematen. Elkarteek ez daukate inolako menpekotasun loturarik udalarekin, eta udalak ez ditu bere gain hartuko, ez zuzenean ez subsidiarioki, lokal barruan izan daitezkeen kalte material, pertsonal edo moralak.

18.8. Berariaz debekatzen dira ondorengo jarduera hauek:

18.8.1. Lokalean egotea ezarritako ordutegitik kanpo.

18.8.2. Indarrean dagoen segurtasun araudia betetzen ez duen edozein jarduera.

18.8.3. Segurtasun arrazoiengatik, material arriskutsuak (produktu sukoiak eta abar) erabiltzea edo gordetzea eskatzen duen edozein jarduera.

18.8.4. Alkoholdun edariak gordetzea, saltzea edo kontsumitzea.

18.8.5. Lokala osorik edo partez erabiltzea eragozten duten aldi baterako egiturak edo egitura finkoak jartzea lokalean, baita lokalaren azpiegitura betiko edo aldi baterako aldatuko dutenak ere.

18.8.6. Gai psikotropikoak kontsumitzea, erretzea eta alkoholdun edariak sartzeari, adingabeak izanez gero.

18.8.7. Sarrera debekatuko zaie alkoholaren edo beste droga batzuen eraginpean egotearen itxura duten pertsonari.

18.8.8. Lokaletan ezingo da jarri tabakoa, alkoholdun edariak edo beste edozein motatako drogak kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik.

5. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA

19. ARTIKULUA. ARAU HAUSTEAK

Arau hausteak izango dira erregelamendu honetan jasotako arauen aurka lokalen lagapen hartzaileek egindako jarduera guztiak. Arau hausteak honela sailkatuko dira:

19.1. Arau hauste arinak: erregelamendu honetan larrizat edo oso larrizat jotzen ez diren guztiak.

19.2. Arau hauste larriak:

19.2.1. Erabilera okerrarengatik kalteak sortu zein apurketak eragitea higiezinan edo lokaleko edo hari erantsitako geletako altzarrietan.

19.2.2. Lokal barruan jendea mespretxatu edo iraintzea.

19.2.3. Irabazteko asmoa duten jardunak egiteko debekua urratzea, erregelamendu honetan deskribatutakoaren arabera.

19.2.3. Irabazteko asmoa duten jardunak egiteko debekua urratzea, erregelamendu honetan deskribatutakoaren arabera.

19.2.4. Gutxienez hiru arau hauste arin egitea.

19.3. Arau hauste oso larria: pertsonen askatasunaren, osotasun fisikoaren edo moralaren kontra egiten duen edozein egintza, eta gutxienez bi arau hauste larri egitea.

20. ARTIKULUA. ZEHAPENAK

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau hausteak egiten dituzten pertsona eta/edo taldeei, bideratu beharreko espedientea bideratu eta gero, ondorengo zehapenak ezarriko zaizkie:

20.1. Arau hauste arinak: bostehun (500,00) euro arteko isuna eta lokala hiru hilabetera arte erabiltzea galaraztea.

20.2. Arau hauste larriak: bostehun euro eta zentimo batetik (500,01) mila eta bostehun euro (1.500,00) arteko isuna eta lokala erabiltzea galaraztea hiru hilabete eta egun batetik bi urtera arte.

20.3. Arau hauste oso larriak: mila eta bostehun euro eta zentimo batetik (1.500,01) hiru mila euro (3.000,00) arteko isuna eta lokala erabiltzea galaraztea bi urte eta egun batetik hasita betira arte.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu hau aplikatzerakoan edo han arautu gabeko alderdi zehatzei buruz sor daitzekoen zalantzak alkateak ebartziko ditu Kulturako Informazio Batzordearen irizpena eta egoki irizitako txosten tekniko eta juridikoak jaso ondoren. Alkatearen erabakiek administrazio bidea amaituko dute, eta haien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean jasotakoaren arabera, eta nahi izanez gero, interesdunek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau lurraldeko aldizkari ofizialean osorik argitaratu eta 15 egun baliodun igaro ondoren sartuko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarrean egongo da erregelamendua aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Iruña Oka, 2019ko urtarrilaren 10a

Alkate-Lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTINEZ GARCIA